

ERAIKAL PROGRAMA 2026**AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA****KASU GUZTIETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA****Ordezkaritza-ahalorde nahikoa egiaztatzea**

Erakunde eskatzaileak eskaera aurkezten duen ordezkariaren bidez jardun dezake. Identifikatzen bazara:

1. Laguntza eskatzen den **erakundearen ziurtagiri elektronikoarekin**, ez da beharrezkoa ordezkari-ahalmen nahikoa duela egiaztatzea.
2. **Pertsona fisiko edo juridikoaren ziurtagiriarekin**, laguntzaren xede den erakundearen legezko beharko du ordezkaria bada, **ordezkaritza-ahalordea aurkeztu**.

**Egoitza fiskala Euskal Autonomia erkidegoan kokatzea**

→ Zerga-egoitzaren kokalekua egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu behar dituzu:

- Zure zerga-agentziak egindako ziurtagiriaren kopia eskaneatua (PDF formatuan).

→ Egoitza soziala edo establezimendu fisikoa EAEn ez duten entitateek egiaztatu egin beharko dute diruz lagundutako jarduerak inpaktu ekonomiko zuzena eragiten duela lurraldean, bide hauetakoren bat erabiliz alderdi hauek justifikatzeko:

1. Jarduketa materialak Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko direla.
 - Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ondasun higiezinetan zuzeneko esku-hartzea dakarten obra- edo zerbitzu-kontratuak.
 - Lurraldean kokatutako higieziinei dagozkien katastroko ziurtagiriak, eskriturak edo oniritzidun proiektuak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako enpresak edo profesionalak kontratatutako dituztela:
 - Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragile ekonomikoekin (eraikuntza-enpresak, arkitekturako edo ingeniari-estudioak, etab.) egindako azpikontratazioen edo lankidetzen fakturak, kontratuak, nominak edo beste egiaztapen batzuk.
3. Zuzeneko enplegua sortuko dela Euskal Autonomia Erkidegoan:
 - Proiektua Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzeko kontratatutako langileen zerrenda, zerbitzua non emango den zehaztuz.
 - TC2 agiria edo baliokidea, langileak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan afiliatuta daudela egiaztatzeko.
4. Aurrez aurreko jarduerak antolatuko direla Euskal Autonomia Erkidegoan:
 - Zabalkunde-, prestakuntza- edo dibulgazio-jarduketan kasuan: Euskal Autonomia Erkidegoan egin izanaren egiaztapenak (programak, inskripzioak, aktak, argazkiak,

etab.).

5. Jarduketa gauzatu bitartean, aldi baterako egoitza edo ordezkaritza erkidegoan izango dutela:
 - Diruz lagundutako jarduketari lotuta Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen aldi baterako establezimenduaren egiaztagiria (obrarako lokala, bulego teknikoa, etab.).



Zerga betebeharrak betetzea

Administrazioak ofizioz kontsultatuko du baldintza hori betetzen duzun.

Zergak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordaintzen badituzu, dokumentu hauek aurkeztu behar dituzu:

- Egoitza sozialaren egoitzari dagokion zerga-betebeharrak bete izanaren ziurtagiriaren kopia eskaneatua (PDF formatuan)



Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzearen ziurtagiria

Administrazioak ofizioz kontsultatuko du baldintza hori betetzen duzun.



Proiektuaren memoria

LERRO I, LERRO II:

1. Sarrera: sustatzailearen deskribapen orokorra, enpresaren antolaketa-egituraren zirriborria eta proposatutako proiektuaren helburu orokorrak.
2. Proposatutako jarduketaren deskribapen xehatua, proiektuan jasotako jarduera bakoitza zehaztuta.
3. Proposamena lan-lerroetako batera egokitzen dela egiaztatzeko dokumentua.
4. Sektorerako egokitasun, aukera eta zuzentasunari buruzko balorazioa.
5. Proiektuak sektorean izan dezakeen inpaktuaren azterketa, adierazleak eta neurketa-mekanismoak barne.
6. Proiektu- edo azterlan-taldearen kalitate teknikoa eta zientifikoa, baita esperientzia ere.
7. Aurreikusi den finantzaketa-eskema.
8. Helburu espezifikoak eta proiektua garatzeko proposatutako gauzatze-epeak.

LERRO III, LERRO IV, LERRO V, LERRO VI

1. Sarrera: sustatzailearen deskribapen orokorra, enpresaren antolaketa-egituraren zirriborria eta proposatutako proiektuaren helburu orokorrak.
2. Proiektua garatzeko proposatutako gauzatze-epeak .



Aurrekontua

Diruz laguntzeko moduko jarduketaren aurrekontu zehatza, laguntza eskatzen den jarduketa-lerroari lotuta. Aurrekontua urteka banakatu beharko da (2028ra arte), bai eta ataza edo jardueren arabera ere. Ataza bakoitzean, bereizi egin beharko dira barne-gastuak (proiektua zuzentzen duen eragilearen beraren gastuak) eta kanpoko edo kontratatutako gastuak (kanpo entitateek emandako zerbitzuei buruzkoak).

- Barne-gastuei dagokienez, egin beharreko zereginen aurreikuspena zehaztu beharko da,

baita baliatutako ordu-tarifaren egozpena ere.

- Kanpoko edo kontratatutako gastuen kasuan, kostuaren zenbatespen arrazoitu bat aurkeztu beharko da, edo, ahal dela, kapitulutan eta partidetan zehaztutako aurrekontu bat. Kontratazio horrek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 31 artikuluan xedatutakoa bete beharko du.
- Aholkulariaren eta/edo ziurtatzailearen eskaintza (III. lerroa, IV. lerroa)



Diruz lagundutako jardueraren eredugarritasuna hedatzeko, jakinarazteko eta indartzeko ekintza-plana.



Eskatzaileak ezin badu jasanarazi Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa, entitatearen BEZaren araubide orokorraren salbuespena egiaztatzen duen Ogasunaren ziurtagiria edo 390 ereduen kopia.



Erakundeak BEZaren zati bat benetan berreskuratzen badu, gastu hori hainbanaketari esleitu beharko zaio, dagokion foru-ogasunak emandako agiri ofizialean amaitutako azken urterako ezartzen den hainbanaketa-ehunekoa aplikatuta.

DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA – INGENIARITZA ESTUDIOAK



Elkargo profesionalaren ziurtagiria.

Laguntza-eskaera ingeniari-taldea baten bidez egiten bada, dagokion ingeniariaren elkargo profesionalaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, deialdi honen aurreko hiru urteetan bizitegi-erakuntzaren arloko proiektuei, aholkularitzari edo txostenei buruzko gutxienez bi lan egin direla egiaztatzeko.

DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA – PERTSONEN TALDEA



Egikaritze-konpromisoak

Laguntza-eskabidea pertsona fisiko zein juridikoen talde batek egin badu, nortasun juridikorik gabeko pribatua edo publikoa izan, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluari jarraikiz, eskabidean zehatz adierazi beharko da zer gauzatze-konpromiso hartu duen taldekide bakoitzak, bai eta dirulaguntzaren zenbateko osotik zein zati dagokion bakoitzari ere, konpromiso horiek kontuan hartuta. Kide guztiak hartuko dira onuraduntzat. Taldearen ordezkariak sinatu beharko du eskabidea, eta izendapena egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu.

**DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA – BIZITEGI-ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO ENPRESAK ETA PROFESIONALAK****Ekonomia-jardueren Gaineko Zerga**

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu behar dituzu:

- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen errolda-egoeraren ziurtagiria.